

Emakumeen eskubideei buruzko erakusketa jarri du Amnistia Internazionalak Biterin


■ Mundu guztian urratzen direla emakumeen eskubideak dio AI-ek "gerran eta pake garaian" ■ Argazki eta azalpenak dituzten panelek osatzen dute erakusketa eta urriaren 8ra arte egongo da.

AMNISTIA Internazionalak jarritako erakusketa dago Biteri kultur etxean, urriaren 8ra arte. Mundu guztian emakumeek jasaten duten biolentzia azaltzen du erakusketa eta panelak daude emakumeen argazkiak eta beren egoeraren azalpenekin. Amnistia Internazionalak zabalduko orriak dio mundu guztiko milaka eta milaka emakumeek jasaten dutela biolentzia motaren bat eta giza talde, etnia kultura eta klase guztietan gertatzen dela.

AI-k dio gero eta Gobernu eta talde gehiagok zalantzan jartzen dutela giza eskubideak unibertsalak direnik, aitzakiatzat jarrita kultura eta herrialde bakoitzeko ohiturak. Giza eskubideak herrialde eta etxe guztietara zabaldu behar direla aldarrikatzen du AIk, eta Estatuek eta Eragile sozialek erantzukizuna hartu eta emakumeen eskubideen alde egin behar dutela.

Gerratan okerrera

Gerra bat dagoenean eta errexiatuak, egoerak txarrera



Biteri kultur etxean dago erakusketa.

egiten duela dio Amnistia Internazionalak: "biolentzia gerrako arma moduan erabiltzen da, emakumeak deshumanizatzeko edo beraien komunitatea suntsitzeko".

Amnistia Internazionalak dio eskubideen aldeko borrokan, emakumeen mugimenduak ari direla lortzen, sozialki onartutako gai pribatu bat, arazo sozialtzat hartzea. □

AMNISTIA INTERNACIONAL

"Hiru emakumetik bat jo izan dute, erlazio sexualak izatera behartu edo gehiegikeriaren bat jasan izan du bere bizitzan, mundu mailan egindako estudio batek azaldu duenez"

"16-44 urte arteko emakumeetan heriotza eta elbarritasunen arrazoi nagusia, familiako biolentzia da Europako Kontseiluak egindako azterketa baten arabera"

"Mundu guztian eraildako emakumeen % 70a, bere bikotekideak hiltzen du"

Gimnasia erritmikoko bilera gaur kiroldegian

GIMNASIA erritmikoan arituko direnentzat bilera izango da gaur, kurtso berriari buruzko zalantzak argitzeko. Bilera arratsaldeko 18:30etan egingo dute kiroldegian. Bestetik, bihar behin betiko zerrendak aterako dituzte. □

Ezkurra eta Eizagirre aurrez aurre gaur Galarretan

ERREMONTA jaialdi handia dago gaur ere Galarreta pelotalekuan eta partidu estelarrean azken bi urteetako buruz buruko txapelkunak neurtuko dira bi bitara: Ezkurra-A. Lekunberri-/Zeberio II-Eizagirre. Aurreko astean 40-36 irabazi zuten Ezkurra eta Aizpuruk, Zeberio II eta Eizagirreraren kontra eta gaur erreban-txa bila irtengo dira bi gipuzkoar-rak. Gainerako partiduak: Martinez II-Olazar/Zalakain-Jon; Agirresarobe-Lizaso/Altuna I-Iri-arte; eta Juaristi-Badiola/Sarasua-Urrutia. Jaialdia arratsaldeko 16:00etan hasiko da. □

Gobernu Batzarra gaur

GOBERNU Batzarra bilduko da gaur Udaletxean, arratsaldeko 17:00etan, eta 8 puntu izango dituzte eztabaidarako. Horieta bi Ave Maria eta Politena Villetako konpentsazio proiektuak dira. Horiak onartu ondorenean aprobata beharko dira ejekuzio proiektuak. Horrez gain, bi enpresen lizentzia eskaerak: San Joan jaie-tako kontuen likidazioa; eta Biteriko ikastaroetako eta auzoetako haurrentzako tailerretako egitarauaren aldaketak hitz egingo dituzte. □

AMHER elkarteko bilera

BIHAR, urriaren 1ean, AMHER elkarte multikulturalak bilera egingo du. Bilera irekia da bertara joan nahi duen guztiarentzat. Bilera arratsaldeko 19:30etan egingo dute, Biterin. □

Skate pista Pana parkean jarriko du Udalak

■ Ongintza Patronatuak onartu du Hernaniko gazte koadrila batek egindako eskaria ■ Tip-Top enpresari adjudikatu zaio obra eta urte bukaerarako egingo egon liteke skate pista berria.

HERNANIKO gazte koadrila batek skate edo patinete pista berria egitea eskatu zion Ongintza Patronatuari, kale hezitzaileen bidez. Eskariarekin batean 1.400 firma inguru aurkeztu zituzten

gazteek eta Patronatuak on-tzat eman zuen eskaria eta onartu berri dute pista berria egitea.

Pana parkean

Hasiera batean Urbieta kale

azpikaldean egitekoa zuten skate pista, baina, neurriak hartu eta nahikoa lekuri ez dagoela konturatu dira. Azkenean, Pana parkean egitea erabaki dute, lehengo skate pista zaharra dagoen toki

horretan.

Obrak Tip-Top enpresari adjudikatu dizkiote eta urte bukaera ingururako baliteke lanak bukatuta egotea, Ongintza Patronatutik Kroni-kari esan diotenez. □


mikel armendariz
proiektu eta instalazio elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

AMEGAR
Etxe tresnak
Altzariak

Elektrogailuak
TB- Bideoak-
HI-FI-Opariak
Sukalde altzariak
Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 03

IKASTAROAK
Eskulana - Arte Ederrak
AURKJ
Elkano 6 - Tel.: 943 55 72 56
EGURRA: Haur eta helduentzat logelak, altzari auxiliarrak,...
TELA: Manteleria, kojina, kortinak, erropak,...
SEDA: Zapiak, kortinak, kuadroak,...
ESKAIOLA, ALABASTRINA: Figurak, jaiotzak,...
BIDRIO DEKORAZIOA
Goiz eta arratsalde - Haur eta helduentzat
Irakasleak:
OIHANA INSAUSTI - PEIO GOELLO
AURKI ESKULANAK
Elkano 6- 943 55 72 56

LABOREAK
Haizea
KORTSETEGI - MIHISEDENDA
Kardaberaz 2 - Tel.: 943 55 55 19
KORTINAK, TOAILAK, TAPETEAK,
KUADROAK eta abar egiteko teknika
ezberdinak erakusten ditugu:
Punto Cruz, Bainika, Gainbilloa, Bolillo,
Punto erdia, zinta punta eta abar...
ENKARGUZKO LANAK ERE
EGITEN DITUGU
HAIZEA LABOREAK
Kardaberaz 2 - 943 55 55 19

Boleiboleko nesken eta mutilen taldeak larunbatean hasiko dute denboraldia, Hernanin eta Gasteizen

Nesken taldea: Neskek Euskal Ligan hartuko dute parte aurten ere. Iaz helduagoen kontra aritu ziren eta eskarmentuak balioko die seguru asko.

Mutilen taldea: Mutilen taldeak ere Euskal Ligan jokatu du aurtengo denboraldia eta iazko mailan ibiltzea da beren helburua.

HERNANIKO boleibol taldeek datorren larunbatean hasiko dute denboraldia. Neskek Hernanin jokatu dute, Mungiaren kontra, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Oso partidu zaila daukate neskek eta are gehiago, kontuan izanda aurre denboraldi oso motza egin dutela boleibol taldeek aurten. Hala ere, iaz helduagoen kontra jokatu zen Hernanin eta ikasteko eta mailari neurria hartzeko balio izan zion denboraldiak eta partidu batzuk irabaztea ere lortu zuten. Aurten ere talde gaztea du, baina, esperientzia gehiagokoa. Iaztik aldatu dena entrenatzailea da eta Luis Mari Arriabalaga entrenatzaile berriak dioenez "duten guztia" emanango dute ligako lehen partidu honetan.

Mutilak Gasteizen
Mutilen taldeak ere datorren larunbatean hasiko du denboraldia, Gasteizen, arratsaldeko 18:00etan. Iazko txapeladun

"Kirol Patronatuarekin izandako eztabaiden ondoren zalantza asko izan ditugu hasi edo ez, baina, kirolariek eta herriak merezi dutela uste dugu eta hasi egingo gara"

kontra jokatu beharko dute ligako lehen partidu, Mungiaren kontra. Partidu oso zaila daukate beraz hernaniarrek, baina, saiatuko dira aur-

ten ere goiko postuetan ibili litekeen taldea dela erakusten. Eusebio Lizarazu entrenatzaileak dioenez, taldeak badaki denboraldia luzea dela eta garrantzitsuena denboraldia nola hasi baino nola bukatu izaten dela. Aurten, zailtasun asko izan dituzte aurre denboraldian entrenatzailearen hitzetan, baina, iaz adinako denboraldia osatuko dutelakoan dago.

Hasi, ez hasi, dudan

Hernaniko boleibol taldeak esan duenez duda asko izan dituzte aurtengo denboraldia jokatu edo ez pentsatzen. Kirol Patronatuarekin izandako eztabaiden ondoren talderik ez ateratzea ere pentsatu omen dute baina "kirolariek eta herriak merezi dutelako" hasi eta "beste aukerak" ematea erabaki dute. □



Kulunka denda Izpizua kaleko aurreneko zenbakian dago.

Euskal artisauen lanak 'Kulunka' denda berrian

DENDA berria ireki dute Izpizua kaleko aurreneko zenbakian. *Kulunka* du izena eta bertan euskal artisauen lanak daude salgai: larruzko poltsak, marketeria lanak, kajak, fularrak, belarritak, eskulturak eta beste hainbat gauza. Dendako arduradunak Nerea Bergara eta Itziar Salaberria dira eta urte batzuk badaramazkete restaurazio lanak egiten eta azoketan gauzak saltzen. Dendaz gain, tailerra ere badute eta bertan muebleak berriitu eta tapizatu egiten dituzte, besteak beste. Lan horiek enkarguz ere eskatu daitezke.

Hernaniko bi artisauen lanak ere badaude *Kulunka* dendan: Anastasia Leundarenak (artilezko lanak) eta Aitor Ruiz de Eginorenak (zeramika lanak). □

ZINGI-ZANGA

Florida 54
943 33 03 97

ZINGI - ZANGA

Jatetxea
Sagardotegia

OKINDEGIA • JANARIDENDA

Zure eguneroko beharrei erantzuteko, hemen gaude.

Kale Nagusia 19
Tel.: 943 55 23 98
HERNANI



Hernanitik Igantzira joandako pelotari gazteak.

Hernaniko pelotari gazteak Igantzin

■ Benjamin, alebin eta kadeteak joan dira Hernanitik eta emaitza onak lortu dituzte.

PELOTARI gazteen paleta goma txapelketa jokatu da Igantzin eta Hernanitik bina bikote joan dira benjamin, alebin eta kadete mailan. Igantziko, Etxarriko, Auritzberriko eta Gasteizko pelotariak aritu dira Hernanikoekin batean.

Benjaminak txapeladun

Emaitzarik onena benjaminek lortu dute, finalera bi bikote hernaniarrak pasa baitira. txapeladun Maider Huizi eta Amaia Irazustabarrena geldi-

tu dira eta bigarren, Ariane Arrieta eta Maider Senper. Alebinetan, Igantziko bikotea gelditu da txapeladun, San Joanetan Hernanin irabazi zuen bikote bera; eta kadeteetan Auritzberrikoak nagusitu ziren eta maila oso ona eman da gainera.

Jaione Tijero Hernaniko pelotarien entrenatzaileak Kronikari esan dionez, aurten pelotari gazte askok eman dute izena pelotan ikasi eta jokatzeko eta talde handia osatu dute. □



Bada perretxikoa. Jende asko da onddotan dabilena eta batzuek bildu ere egiten dute. Argazkia Hernaniko baserri batean aterea da: onddo eta korintoak 70-80 bat kilo. Non bildu den, ordea, ez omen da esaten eta... □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103
- ▶ Alkoholiko anonimo: 943 331103

✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Aizpuru
Latsunberri 11
☎ 943 336077
- ▶ Gaez: Aizpuru
Latsunberri 11
☎ 943 336077

IRAGARKI MERKEAK

36 urteko emakume arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da 09:30etatik aurrera garbiketara lanak egiteko (etxea, taberna,...). Kotxea daukat. Deitu: **615 72 14 64**

Emakume bat behar dugu, haurra ikastolara eraman eta etxeko lanak egiteko. Sarrera ordua 07:15etan. Deitu: **628 204 471** (arratsaldeko 20:00etatik aurrera deitu)

Alkilerreko pisu txiki baten bila nabil edo bestela konpartitua. Hernanialdean. Lan finkoa daukat. Deitu: **678 28 64 03**

Pisua salgai Zikuñagan. 70 m2 eta kanpora begira; erreformak egin berri ditu eta bitizteraz sartzeko moduan dago. Interesatuek deitu: **653 73 79 90**

Iniigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)**

HERNANI HIZKUNTZAK

(Gure Ingelesetxea)

ZORIONAK guztiontzat *Advanced* eta *First* azterketak gainditzeagatik.

DATORREN IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK

BERRIKUNTZA: Aleman eta Gaelikoaren klaseak hasieratik

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08 KALE NAGUSIA 41, 1